

# Digi Onze



Kirolen

## aldarrikapena

Digi Onze, Javi Pez donostiarraren *alter ego*-etako bat, disko berri batekin iritsi zaigu. *Sports vol.1* biniloan eta mini-CDan argitaratu du Novophonic zigiluak, eta 1999an iritsiko diren beste bi lanen lehen pausoa da. Ping-ponga, petakoa (Pinball), surfa eta safaria jorratu ditu lehen lan honetan, eta hurrengorako, xakea, parapentea eta beste kirol «abstraktu» batzuk iragarri ditu.

### ■ Zein da Digi Onze?

Digi Onze Dimas Gilberto Onzeta da, pertsonaia erdi erreala, erdi fikziozkoa. 1992an Caraca- sen izan nintzen, eta han pertsona bat ezagutu nuen, Dimas Gilberto Onzeta. Musika latinoko oso disko bilduma ona zuen, eta kaset batzuk grabatu nituen: Johnny Pacheco, Tito Puente... salsa zaharreko klasikoak. Gero, itzuli nintzenez, musika hori erabiltzen hasi nintzen, sampleatzen eta abar. Horrela, Digi Onze pertsonaia asmatu genuen.

■ Zure lanak aurkezteko hainbat izengoiti erabili dituzu: Parafunk, Camping Gaz & Digi Random, Instrumentak, Digi Onze... Zergatik?

Dibertitzeagatik, egia esan. As-

perduraren kontrako etengabeko borroka da nirea. Dena oso aspergarria da, eta nik askoz dibertigarriago ikusten dut musika. Beti saiatzen naiz ikuspuntu ironikoa erabiltzen.

■ Izengoiti bakoitza musika ikus- teko modu batekin lotuta dago?

Bai. Digi Onze, adibidez, *alma mater* latino da. Digi Onzeren abesti guztiak bide latinora bideratzen ditugu, baina, hala ere, bada surf abesti bat ere. Gainera, kirolen gaineko diskoa egin dugunez, era berean, disko kontzeptu bat egin dugu, venezuelar ikuspuntu-ko disko kontzeptuala. Ikusten duzun bezala, dena oso eroa da. Komiki baten antzekoa da dena.

■ Diskoan esaten duzue kirolei omenaldi bat egin nahi diezuela *Sports*-ekin. Zergatik?

Eta zergatik ez? Egia esan, uste dut kirol gehiegikeria bat bizi dugula. Erokeria horri ironia puntu bat eman nahi diot. Horregatik egin ditugu telebistan azaltzen ez diren kirolei buruzko kantuak. Bigarren parte bat aterako dugu biniloan beste lau kirolekin (parapentea, pultsua, xakea...), eta ondoren guztia 11 kantuko CD batean bilduko dugu. Beno, 11+1 izango ditu, futboleko bezala.

■ Abestiak formatu txikietan eta sarri ateratzeko ohitura duzu. Egiten duzun lana momentuan argitaratzea gustatzen zaizu?

Bai, gauzak egiteko era fresko-agoa da. Poliki-poliki egiten ditut, eta egin ahala kaleratuz jotaten naiz. Horrela ez dira gelditzen hozgailu antzeko batean, eta gainera, niretzat askoz erosagoa da. Esaterako, Digi Onzeren *Sports vol. 1*-n erabili dugun mini-CD formatua oso polita da, aukera asko ematen dituelako. Mini-CD batean 20 minutu ko-

musika sartzen duzu, eta bizpahiru hilabeteko lana izaten da. Azken batean, talde batek urtebete behar izaten du CD luze bat argitaratzeko, eta era honetan poliki-poliki ateratzen dituzu kantuak. Gainera, arreta pizten duzu etengabe.

■ Lan honetan sanpler asko erabili duzu. Zer eskaintzen dizu teknika horrek?

Bai, Digi Onze sanplerretan oinarritua dago. Sanplerrak eskaintzen duen giroa, soina... da gehien gustatzen zaidana. Sanpler bat edozein diskotatik ateratzen duzunean, giro bat hartzen duzu, orijinalen sustraitutako giro bat; eta hori gero tratatu egin behar duzu, milaka zatitan banatu eta buelta eman. Zeure abesti batera egokitu behar duzu.

■ Zuk dance musikan oso gutxi agertzen diren umorea eta ironia erabiltzen dituzu.

Bai, seriotasunerako joera handia dago musika estilo guztietan. Gauza guztiei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ez luke horrela izan behar. Kraftwerkek umore handia zuen, eta gaur egun hori falta da Kraftwerken mailara iritsi nahi duten taldeen artean. Hip-hoparen barruan ere umore falta izugarria dago. Lehen baziren hip-hop talde oso dibertigarriak, De La Soul, Jungle Brothers, A Tribe Called Quest eta abar. Gauzak ondo egiten zituzten, ez ziren txistosoak, baina umorea zuten.

■ Zeintzuk dira zure proiektuak epe laburrera?

Kirolen bilduma amaitu nahi dugu 1999an, eta, bestalde, beste proiektu pare batean ere ari naiz. Truffauten *Fahrenheit 451* filmerako musika jarriko du Intrymentalek (Ibon Errazkinekin duen proiektua); eta Camping Gazen disko berri bat egingo dugu Txarly Brownnek eta biok. Zirkuaren munduari buruz izango da, eta, jakina, disko industriarekin zerikusi zuzena izango du.

mikel lizarralde

## l a u p i s t a t a n

### ■ Skalariak

taldeak mar- txoan kaleratuko du bere bigarren diskoa (*Klub ska*), baina, horren aurrerapen gisa, hiru abestiz osaturiko singlea argitaratu du Gor disketeak. Lehenengo abestia *Sólo vivir* da, taldearen abesti berrietako bat. Bigarrena, berriz, Skalarien zuzeneko emanaldietan klasiko bihurtu den *Phoenix city* kantua- ren bertsioa da, eta azkena lehenengo diskoan azaltzen zen *Fuego de revolución* regga- earen dub nahasketa da.

### ■ Aitor Zabaleta- ren

hilketak rock munduko jendea ere mugiarazi du, eta, adibidez, otsailaren lehenengo hamabostaldian Madrilen jokatuko den futbol partidu batean parte hartuko dute musikari askok. Oraindik baieztatu gabe dago non eta noiz jokatuko den partidua, baina antolatzaileek hainbat musikari ezagunen parte hartzea ziurtatu dute. Besteak beste, talde hauetako kideek jokatuko dute eraso- en kontrako kontzertuan: Reinciden- tes, Barricada, La Polla, Dover, Siniestro Total, Fermin Muguruza, Soziedad Alkoholi- ka, Flitter...

### ■ Bad F-line

Arrasateko taldeak Madrilgo Desobediencia diskoetxearekin kaleratuko du bere lehen lan luzea izango dena. Iaz mini-cd bat grabatu zuen taldeak eta Ou disketeak kale- ratu zuen. Dagoeneko grabatu dute diskoa Soziedad Alkoholi- kiko Jimmy J-ren ekoizpenare- kin eta egunotan azken lanak egiten ari dira. Bad f-linen soinu industrial gogorra alde batera utzi gabe, disko berriak dance elektrikoko doinu batzuk ere izango ditu.

## d i s k o a k



Jon Spencer Blues Explosion

Acme

Mute / Everlasting, 1998

'This is blues poweeer'. Blues *Sexplosion* erasoan dugu berriro. Hona hemen duela urte eta erdi inguru Bilboko Kafe Antzokian zur eta lur, ikaraturik utzi gintuen taldearen disko berria. Jon Spencer buru duen hirukotearen bosgarren lana da *Acme* (*summum*-a, puntu gorena). Diskoa entzuten hasi orduko, erraz antzematen da aurreko lanekiko ezberdintasun handiena: Calvin Johnson, Steve

Albini eta Suz Dyer teknikariek soinuari emandako garbitasuna. Garbitasuna ez dagokio soinuari soilik. Disko honetan daude JSBX-ek idatzi dituen kantu irensgarrietako batzuk (*Magical colors*, *High gear*). Jon Spencer bera ohartu da horretaz. «Beharbada disko honekin publiko zabalak ezagutuko gaitu», aitortu du.

Aurreko lanei zerien pozoi, basakeria eta zikinkeria- ren jarraitzailei beharbada dezeptzioa eka-

rriko die *Acme* entzuteak, baina ez luke horrela izan behar, oso disko erakargarria baita. Bluesa, *soul*-a, *rythm'n'blues*-a eta rocka uztartzen dituzten kantu beroak, sexualak, sentsualak, izerditsuak, dantzagarriak, grinazkoak ditugu bertan. Probokatzeko eta seduzitzeko musika, taldeak beti egin duen bezala. Hirukoteak kolaboratzaile fin ugari izan ditu: Dan the Automator (Dr. Octagon) *scratch*-etan eta nahasketetan,

Alec Empire (Atari Teenage Riot) berlingar beldurgarria *Attack* kantua- ren nahasketan, Shaw sintetizadoreetan, Cristina Martinez (Boss Hog) eta beste asko ahotsetan, pianoan, ahosoi- nuan...

Bukatzeko, utzidazu gomendio bat ematen: inoiz zuzenean ikus- teko aukera baldin baduzu, ez ezazu galdu.

jon eskisabel

Joseba Tapia  
Koldo Izagirre

Apoaren Edertasuna



Morau  
Kantu galduak



Bide Ertzean  
Poesia,  
Kantua,  
desioa



Tel/Fax 943 753016